

ehbildu



BAKERAKO EUSKAL KONPONBIDEA

68 ekintza bakea eta
normalizazio politikoa lortzeko

1 SARRERA



Euskal gizarteak iraganean gertatutakoaren inguruko egia jakiteko eskubidea du, horrela, egin ziren eskubideen urraketa guztiak erreparatzeko ekintzak bultzatzeko eta memoria inklusibo bat gordetzeko.

Euskal gizarteak bakea lortzeko eskubidea du. Bakea, gaur egun, ez da erabatekoa, eta bultzada handia eman behar zaio, gizaki ororen berezko duintasunean oinarrituta giza eskubide eta oinarrizko askatasun bakar bat ere urra ez dadin orain eta hemen, oinarri demokratikoak ezarri berriro urraketarik ez geratzeko.

Euskal gizarteak etorkizunean bizikidetzatza demokratikoaz eta normaliza-

zio politikoaz gozatzeko eskubidea du, eta, horretarako, eskubide indibidual eta kolektiboak berriz urratuko ez direla bermatu beharko da. Aniztasunaren errespetuan oinarrituta, ideia eta proiektu politiko guztiak demokratikoki defendatzeko eta askatasun osoz garatzeko aukera emango duen esparru politiko bat eraiki beharra dago, hau saihesten duten oztopo guztiak mugiaraziz.

Gure ustez, gaur egun zirkunstantzia objektibo egokiak ditugu hiru norabide horietan lan egiteko, **iragan** dramatiko baten ikuspegi kritikoan, **orainaren** aurrean daukagun erantzukizunean eta **etorkizunarekiko** konpromisoan, alegia.

2 TESTUINGURUA

Azken bost urteetan, urrats handiak egin dira. Gertakari eta borondate batzuek emaitzak ematen hasi behar dute jada. **ETAk** jardun armatua bertan behera uzteko hartutako erabakia funtsezkoa izan da garai politiko berri bati hasiera emateko. Eta erabaki hori hartzeaz gain, armagabetzean aurrera egiteko borondatea agertu du.

Tamalez, **Espainiako eta Frantziako gobernuak** ez dute eskema beraren barruan jokatu nahi izan, eta jarrera itxi eta oztopatzaile nabarmena agertu dute konponbide integral baterako baldintza berriak eta konstruktiboak sortzeko aukeraren aurrean. Euskal gatazka politikoaren ondorioei dagokienez, bereziki ankerra eta setatia izan da gobernu horien jarrera, eta sufrimenduak eta giza eskubideen urraketak irautea dakarten politikak aplikatu dituzte.

Gure ustez, gaur egun **gehiengo sozial, politiko eta instituzionalak** daude erronka horiei adostasunean eta erantzunkidetasunean oinarrituta eta egoez eskatzen duen bezala aurre egiteko, betiere jardun politikoak azken bost urteetan ezaugarri bereizgarri izan dituen gaitzespenetatik eta gauzei izkin

egiteko joeratik urrunduta. Izan ere, herrialde honek bizi izan dituen erabaki handien ondoren (hala nola Aieteko Adierazpenaren eta **ETAk** ekintza armatuak bertan behera uzteko hartutako erabakiaren ondoren), denbora ez da erabili erronka horiek praktikan gauzatzen laguntzeko, norberaren posizioa defendatzeko baizik. Lehentasun handiagoa eman zaio norberaren posizioak justifikatzeko eta besteen posizioei erantzun eta agiraka egiteko helburuari elkarrekiko konfiantzarako eta elkar aditzerako guneak irekitzeko eta, azken batean, oraindik ere badiraute eta garai berrian erantzuna beharko duten erronka ugari aurre egiteko helburuari baino.

Ezin dugu ukatu bilakaera bat gertatu dela eremu horretan. Adibidez, desberdinen arteko hurbilketa eta gune komunak bilaketa ugari izan ditugu, eta topaketa horiek pentsaezinak ziren duela urte gutxi batzuk. Gure ustez, gizarteak eta, bereziki, **giza eskubideen urraketen askotariko biktimek** hau da, gehien sufritu dutenek, nabarmen egin dute aurrera esperientzia praktikoko horretan. Eta sakondu beharra dago gogoeta horretan: gizarte-bultzada ho-

rrekin bat egin behar dugu, eta eskatzen zaigun jarrera konstruktiboarekin erantzun behar dugu.

Ezin dugu ahaztu, halaber, sustrai politikoa duten beste indarkeriazko gatazka batzuen inguruko esperientzian oinarrituta jardunbide egokiak bultzatzen eta errazten dituen eta haiei buruzko aholkularitza eskaintzen duen **nazioarteko ekimena**. Zalantzarik gabe, herrialde honetan gertatutakoak ez du parekorik, baina nazioarteko adituek eskuzabaltasun osoz helarazten diguten inspirazioa eskertu behar dugu.

Hain zuzen ere ildo horri eta **gizarte-eskari** horri jarraiki, bada sentsibiltate politiko desberdinak konpromiso partekatu batzuetara iristeko garaia, adostasun-puntuetatik eta desadostasun logikoetatik abiatuta egungo erronkei ekiteko. Aurreko ziklo historiko-politikoari behin betiko amaiera emateko garaia da. Beste era batera esanda, hitzetatik ekintzetarako jauzia egin behar dugu. Denok memoria, bake eta bizikidetasunerako urrats irmotzat hartuko ditugun gauzak gertatzen hasteko garaia da.

Jakina, aukera horiek zapuzteko arrisku bat baino gehiago dago. Errepresioaren jarraipenak, zenbaitek “kontaktetaren inguruko borroka” deitzen dutenak sortzen duen amorruak eta nolabaiteko etsipena dakarren eta jardutea zailtzen duen atzerapenak era konstruktiboan bultzatuko gaituzten elementuak izan behar dute.

Oinarri horietatik abiatuta idatzi dugu **ekintza-plan** hau, eta EHBilduk ziklo politiko honetarako zehaztutako jarduna bideratuko duen programa izango da. Oinarrizko programa honetatik abiatuta bultzatuko ditugu ekimenak eta planifikatuko ditugu erronkarik hurbilenei eman beharreko erantzunak. Printzipio horiek, halaber, irekita dauden indar politiko guztiekin akordioak lortzeko oinarrizko funtsak izango dira.

Esan beharrik ez dago EHBilduk konpromisoa hartu duela hemen azaldutako ekimenak gauzatzeko zereginean erabateko erabakitasunez inplikatzeko eta ekimen horien ondoriozko politika publikoetan eragiteko eta era positiboan esku hartzeko.



3 EKINTZAK

3.1. MEMORIA DUEN IRAGANA

EGINKIZUNA:

- Biktima oro aitortu, erreparatu eta errehabilitatzea.
- Kontaketa inklusibo bat ezartzea.

Ikuspegi humanitario batetik, motibazio politikoek eragindako benetako tragedia batez osatuta dago iragana, sufrimenduari dagokionez. Gatazka politiko horrek esku-hartze ir-moa behar du behin betiko konpondu ahal izateko.

Egiaztatu dugunez, iragan horren inguruko ikuspegiak alderdi eta agente politiko eta so-zialak urruntzen baditu ere, testuingurua aproposa da hurbilketak egiteko (ez, ordea, for-mulazio itxi batean, jardun praktikoan baizik). Aniztasunetik eta askotariko kontaketa-tik abiatuta biktimak gero eta islatuago, onartuago eta erreparatuago sentitzeko guneak eta ekimenak sor daitezke.

- Ekintzak

3.1.1.- Memoria historikoa:

1.- Urriaren 15eko 46/1977 Amnistiaren Legea indargabetzea, gizateriaren aurkako delituak egin zituztenen zigorgabetasuna eragin duelako.

2.- Egiaren Batzorde bat kontuan hartuko duen memoria historikoari buruzko eus-kal lege bat aldarrikatzea, eta 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta or-dain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 FORU LEGEAN sakontzea.

3.- Gizateriaren kontrako delituak ikertu eta epaitzeko euskal epaitegietan eta bai-ta ere, jurisdikzio unibertsalean oinarrituta, nazioarteko auzitegien aurrean kerei-la bultzatzea.

4.- Erakunde-maila guztiak inplikatzeko biktimak babesteko eta biktimei laguntzeko zereginetan kereila-jartzaile gisa jardun dezaten.

5.- Sinbolo faxistak behin betiko desagerrarazteko ekimenak burutzea.

6.- Altxamendu faxistaren biktimak berreskuratzea: hobotik ateratzeko ekimenak bultzatzea, hobien mapa osatu eta eguneratzea, DNA banku bat sortzea eta altxamenduaren ekintza judizializatzeko protokoloak hobetzea.

7.- Memoria-ibilbideak egitea eta era koherente eta integralean omendu eta errekonozitzeko mugari memorialistak bultzatzea.

8.- Eztabaidatzeko guneak, parte-hartze soziala, zabalkundea, topaketak, memoria-zereginaren nazioartekotzea, ekimenen finantzaketa egokia, plataformak, biktimei elkarteak, alderdiak, sindikatuak eta elkarte historikoak bultzatzea.

9.- Erakunde memorialisten Kontseilu iraunkor bat sortzea.

10.- Hezkuntza-sistemaren curriculumean memoria historikoa txertatzea.

11.- Nazioarteko erakundeei hainbat kasu aurkeztea eta erakunde horiek zabalkunde-zereginetan, Estatu espainolari gomendioak egiteko zereginetan eta salaketa-zereginetan inplikatzeko saiatzea.

3.1.2.- Memoria garaikidea:

1.- Biktimak (eta, bereziki, oraindik izaera hori ez dutenak) errekonozitu eta erreparatzeko legeria osatu bat bultzatzea, berdintasun-tratamendu batekin eta denbora-eremu osora irekita.

2.- Euskal erakundeek eremu horretan hartzen dituzten erabakien aurkako betoen, kanpoko intromisioen edo errekurtsioen aurrean babesteko mekanismo instituzional eta politikoak bilatzea.

3.- Biktimaren izaera edo errealtatearen inguruko interpretazio arbitrarioen ondorioz biktimei erreparazio-eskubideak ukatzen dituzten gobernuaren edo judizialaren ebazpenak indargabetzea.

4.- Erakunde-maila guztietan Memoriari, Bakeari eta Bizikidetzari buruzko ponentziak, foroak edo gogoetaguneak sortzeko aukera bultzatzea.

5.- Alde bateko zein besteko biktimenzako gogoetagine zabalak eta iraunkorrak sustatzea, eta biktimen ekimenak, plataformak eta elkarteak behar bezala finantzatzea, berdintasun-printzipioan oinarrituta.

6.- Egiaren eta justiziaren aldeko borrokan genero-ikuspegia txertatzea eta, ildo horretan, emakumeek emakume izateagatik sustrai politikoko indarkeria bat espezifikoki jasan dutela ulertzea; emakumeek errekonozimendu eta erreparaziorako duten eskubidea espezifikoki kontuan hartu eta babestu behar da.

7.- Torturen eremuko ikerketa-lanak bultzatzea, eta, zehazki, biktimak errehabilitatzeko premiak eta Istanbulgo Protokoloaren aplikazioa zabaltzeko baliabideak identifikatzea.

8.- Botere judizialak “etsaiaren legeriaren” aplikazioan duen inplikazioak eskubide zibil eta politikoetan eta legezko jardun publiko eta gardenak kriminalizatzen dituen kontaketa bat ezartzeko garaian duen eragina aztertzea.

9.- Zigorgabetasunaren hedapenaren eta “egilearen zigor-zuzenbidearen” aplikazio arbitrarioaren inguruko diagnostikoa egitea; izan ere, auzitegiek era arbitrarioan aplikatu dute zigor-zuzenbidea delituak ikertu eta epaitzeko garaian, delituzko egitatearen ezaugarri politikoen arabera. Halaber, botere judizialak egia juridikoa ezartzean izandako porrotaren inguruko diagnostikoa egin behar da.

10.- Indultuaren aplikazioaren dimentsioari eta kasuistikari buruzko azterketa publikoa egitea.

11.- Herritarrek egia ezagutzeko duten eskubidea praktikan jartzeko tresnak ezartzea, eta, ildo horretan, giza eskubideen urraketen datu-base integral bat sortzea (“Izen guztiak” izenekoa).

12.- Hezkuntza-eremuan biktimen esperientziak ebaluatzea eta esperientzia horiek hezkuntza-sistemako agente guztien inplikazioarekin berriz bideratzea, ikasleak bakearen, bizikidetzaren eta gatazken konponketa baketsuaren balioetan ahalduntzeko.

13.- Biktimen umilazioari lotutako delituak edo gorespen-delituak erreformatu eta despenalizatzea, adierazpen-askatasunaren printzipioari jarraitzea eta duintasunaren edo ohorearen kontrako erasoak jasan dituen biktima orori babes objektiboa eskaintzea.

14.- Nafarroan Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua (Gogora) sortzea, Institutua leihatila iraunkor gisa bideratzea, eta ikertzeko eta biktima

mei laguntzeko erakunde gisa dituen aukerak errentagarri egitea.

15.- Interpretazio kritiko batetik abiatuta memoria “beste inoiz ez” ikuspegiarekin etorkizunerantz proiektatuko duen, egoera ez errepikatzeko bermeen eta askotariko kontaketen ezarpena bultzatuko duen eta sentsibilitate politiko guztiak hartuko dituen memoria kolektibo integratzaile, inklusibo eta demokratiko bat bultzatzea.

16.- Eztabaida soziala irekitzea eta adostasun zabalekin bultzatutako mugarri memorialistiko plural eta inklusiboen bidez zabaltzea.

17.- Eztabaida sozial, politiko eta instituzional baterako enpatiaguneak sortzea eta era integratzailean zabaltzea, zauriak berriz ireki gabe.

18.- Giza eskubideak zaintzen dituzten aditu, instituzio edo nazioarteko erakundeek esku hartzeko ekimenak eta nazioarteko protokoloen aplikazioa bultzatzea giza eskubideen bortxaketan biktimen aitortza eta erreparazioa sustatzeko.

19- Egia jakiteko oztopoak kentzea: sekretu ofizialei buruzko legeak aldatzea, dokumentuak desklasifikatzea, artxibo ofizialak irekitzea eta abar.

20.- Erakunde publikoen, unibertsitateen, memoriari lotutako erakunde pribatuen, dokumentazio-zentroen, elkarte memorialisten eta abarren artean hitzarmenak egitea ikertzaileentzat eta herritar ororentzat irekita egongo den dokumentazio-funts memorialistiko bat sortzeko.

3.2. ORAINALDI BAKETSUA

EGINKIZUNA:

- Gaur egun indarkeria, sufrimendua edo giza eskubideen urraketa eragiten duen zirkunstantzia orori konponbidea ematea.

- Bakerako eskubidea garatzea.

- Giza eskubideen urraketaren prebentziorako mekanismoak aplikatzea.

Bakea ez da behin betikoa oraindik gure herrialdean. Giza eskubideen urraketak eta sufrimendua etengabeak dira oraindik. Egindako aurrerapenak gutxietsi gabe eta urraketak txikiagoak direla egiaztatuta ere, adierazi beharra dago giza eskubideen urraketak jasaten dituenarentzat urraketa gauza absolutua dela eta estatistika-hobekuntzek edo testuinguru egokiek ez diotela ezer esaten. Orainaren inguruan jarduteko, hiru eremu landu behar dira: ETAREN armagabetze antolatuaaren alde lan egin behar da, zigor-politika

eta espetxe-politika eraldatzeko ekintzak egin behar dira, eta euskal lurraldearen desmilitarizazioan aurrera egin behar da, horretarako behar diren aldaketa legalak gauzatu, eskubideen egikaritze osoa bermatuko duenak.

3.2.1.- ETAre armagabetzearen inguruko ekintzak

- 1.-** Erakundeen babesa ETAre armagabetze antolatua, egiaztagarria eta behin betikoa lortzeko.
- 2.-** Mundu osoan antzeko gatazkak konpontzeko dinamiketan parte hartu duten adituen jarduna eta nazioarteko bideratze-lanak bultzatu eta babestea.
- 3.-** Armagabetze-prozesuari ahalik eta lege-estaldurarik handiena eta zilegitasun politikoa, instituzionala eta soziala emateko adostasun politiko-instituzionalak lantzea.
- 4.-** Euskal Herri osoko gobernu, parlamentu, alderdi politiko eta gizarte-eragileek parte hartzeko baldintzak erraztea.
- 5.-** Errespeturik handienarekin, helburu horiek dituzten eta herritarren inplikazioa bultzatzen duten ekimenek erakundeen laguntza jasotzeko aukera sustatuko da.
- 6.-** Oztopatzeko edo sabotatzeko ekintzek ETAre armagabetzea ez zapuzteko lan egitea.

3.2.2.- Zigor- eta espetxe-politikaren inguruko ekintzak

- 1.-** Beste prozesuetan esperientzia aintzat hartuta, justizia trantsizionalaren ikuspuntutik Justizia trantsizionalaren ikuspuntutik abiatuta arrazoi politikoengatik askatasunik gabe dagoen edota egoitza herrialdetik kanpo finkatu behar duen euskal herritarrik gabeko egoera batera eramango gaituzten nazio eta nazioarte mailako ekimenak bultzatzea.
- 2.-** “Etsaiaren Zigor Zuzenbidearen” eskema Euskal Herriko eskenatokian aplikatu beharreko zigor- eta espetxe-politikarako iturri eta oinarri gisa bertan behera uztea.
- 3.-** Gaixotasun larriak edo sendaezinak dituzten presoentzako eta 70 urte baino gehiago dituztenentzako konponbide humanitario bat sustatzea.

4.- Urruntzean eta sakabanatzean oinarrituta dagoen eta senideen giza eskubideak urratzen dituen espetxe-politikari amaiera emateko berehalako esku-hartze politikoa.

5.- Isolamendu sistematikoa eta espetxearen barruan hainbat modulutan sakabanatzea bultzatzen duen politika amaitzeko lan egitea.

6.- Presoak intimitatea edo familia-bizitza izateko duen eskubidea zaintzearen alde egitea.

7.- Komunikazioetarako eskubidea errespetatzen dadin eskatzea. Espetxeak gizartera irekita egon behar du, eta alderantziz. Komunikazioak sistematikoki kontrolatzea, bisitaldiak egiteko lagun kopurua 10era mugatzea eta vis a vis bisitaldiak senideek soilik egin ahal izatea ez da onargarria.

8.- Gaur egun euskal presoek % 90 1. graduan daudenez gero, erregimen itxian bizi-baldintzak mugatuta dituzte, eta ez dute baimenak lortzeko aukerarik; hori dela-eta, gradu-progresioaren murrizketa arbitrarioen aurka egin beharra dago.

9.- Salbuespenezko zigor- eta espetxe-politikak indargabetzeko ekimenak abian jartzea, eta, zehazki:

- Ekainaren 30eko 7/2003 legea indargabetzea. Izan ere, euskal presoek askatasun-eskubideak neurritz kanpo murrizteaz gain, atzeraeraginez aplikatzen den lege kaltegarri bat da, eta hori ez dator bat zigor-zuzenbidearen printzipio eta funtsekin.

- 40 urteko zigorra osorik betearaztearen edota espetxealdi iraunkor berrikusgarri deitutakoaren (Estatu espainolaren kasuan) eta "perpetuité" izenekoaren (Estatu frantsesaren kasuan) bitartez biziarteko espetxe-zigorra ahalbidetzen duen legeria berrikustea.

- Sailkapenari eta baldintzapeko askatasunari lotutako errekurtsioetan jarduteko eskumena espetxea dagoen mugapeko Probintzia Auzitegira eskualdatzea.

- Epaitegi naturalek espetxe-zaintzaren eskumenak berriz beren gain hartzea, legeria arruntaren barruan eta presoek eskubideen bermatzaile gisa.

- Legeria arrunta kontuan hartuta, kondenaren bi heren betetzean baldintzapeko askatasuna lortzeko aukera aplikatu behar da.

10.- Erakundeek zigorra koderik mesedegarrienaren arabera berrikusteko, kondenak tipo arinduaren arabera berrikusteko eta, ildo horretan, kondena betetze-

ko gehieneko mugak ezarritako zigorraren arabera aplikatzeko (ez delitu motaren arabera) dinamika juridikoetarako laguntza ematea.

11.- Estatu frantsesean betetako epaien zenbaketa errespetatuko dela ziurtatuko duten gehiengo politikoak eraikitzea, 675/2008/JAI Esparru Erabakiaren interpretazio desnaturalizatuan oinarrituta.

12.- Espetxe-eskumena Euskal Autonomia Erkidegora eta Nafarroako Foru Erkidegora transferitzeko eskatzea, eta justizia trantsizionalaren eta zigorraren aplikazio alternatiboaren ikuspegitik eskumen hori nola aplikatu beharko litzatekeen aztertzeke eztabaida egitea.

13.- Euskal presoak eta Iheslari eta deportatuak gizarteratzeko prozesua erraztuko duten akordioen bilaketa sustatuko da indar politikoen arteko akordioen eta erakundeetako akordioen bidez.

14.- Dagozkien baliabide ekonomikoak, trebakuntza-baliabideak eta etxebizitza lortzeko aukera bultzatuko da.

15.- Iheslari eta deportatuei dagokienez, itzultzeko prozesua erraztuko da, eta arreta berezia eskainiko zaie gaixotasun larrien edo sendaezinen eta urte asko izatearen ondorioz larrialdi humanitarioko egoeran daudenei.

16.- Motibazio politikoko presoen arazoa konpontzeko prozesuaren barruan, ez dugu ulertzen espetxeak berriz betetzea. Irizpide orokor gisa, justizia-administrazioaren legeak eta mekanismoak garai politiko berrira egokituko dira, eta epaiketako politikoak amaitzearen eta epaiketa horietan auzipetutako pertsonen eskubide zibil eta politikoen alde egingo da.

17.- Auzitegi Nazionala desagertzeko eta euskal auzitegien eskumen judicial arruntarekin normaltasunera itzultzeko ekimenak bultzatuko dira, epaile naturalaren printzipioan oinarrituta.

3.2.3- Desmilitarizazioaren inguruko ekintzak

1.- Beharrezkoa da Estatuko Segurtasun Indarrak joatea eta Euskal Polizia Kidegoek herritarrak babesteko eta haiei zerbitzua emateko zereginak beren gain hartzea. Estatuko Segurtasun Indarrak pixkanaka joateko desmilitarizazio-plan bat diseinatuko da (segurtasun-batzordeetan izango da operatiboa).

2.- Indar horiek gaur egun betetzen dituzten askotariko funtzioak (Nafarroan batez ere) Ertzaintzak eta Foru Poliziak hartuko dituzte beren gain pixkanaka.

3.- Azterketa kritiko batetik abiatuta, euskal polizia-ereduari buruzko eztabaida bultzatuko da, baliabideak, polizia-ratioak eta funtzioak segurtasun-premia objektiboetara egokitzeko.

4.- Eztabaida hasten denetik amaitzen den eta hartutako erabakiak ezartzen diren arte, ezinbestekoa izango da funtzionatzeko eta udaltzaingoaren eta Ertzaintza/Foru Poliziaren baliabideak koordinatzeko eredu iragankor bat sustatu eta antolatzea, sor daitezkeen hutsuneak saihesteko.

5.- Zeregin horiek beren gain hartuko dituzten Euskal Polizia Indarren barruan, giza eskubideak zaintzeko mekanismo independente eta eraginkorrak sortuko dira, iraganeko okerreko jardunbideak gainditzeko eta gizarte osoaren zerbitzuan jartzeko.

6.- Eremu publikoan eskubide eta askatasun guztiak indarrean jartzeko esparru berri eta orokor bat ezartzea, eskubide horiek mugatzen dituzten legeriak, erregelamenduak eta ordenantzak baztertzea eta Mozal Legea indargabetzeko beharra bereziki azpimarratzea.

3.3. BIZIKIDETZA DEMOKRATIKOAN OINARRITUTAKO ETORKIZUNA

EGINKIZUNA:

- Bizikidetza gehiengo demokratikoen errespetuan oinarritzea.
- Normalizazio politikoa bultzatzea eta eztabaida publikoan indarkeriazko injerentziak baztertzea.
- Berriz ez gertatzeko bermeak ezartzea.

Desadostasun eta gatazka politikoak bide demokratikoetatik konpontzeko akordio baten bidez lortu behar da bizikidetza, ziur baikaude proiektu guztiak, berdintasunaren printzipioaren arabera, askatasun osoz eta herritar gehien atxikimenduari jarraikiz defendatu eta gauzatu daitezkeela.

1.- “Bizikidetza Demokratikorako Akordio” bat bultzatzea. Horren arabera, asmo sozial eta politiko guztiak hertsadurarik, inposaketarik eta ezein indarkeria motara jotzeko mehatxurik gabe garatu ahal izango dira.

2.- Bakean eta giza eskubideetan oinarritutako Hezkuntza Plan bat idatzi eta ezartzea, giza eskubideak motibazio politikoagatik urratzen diren egoera batetik es-

kubide guztiak zaintzen diren egoera baterako trantsizioa egiaztatzeko eta gizarte plural eta moderno baten etorkizuneko erronkei ekiteko.

3.- Bakea pertsonen eta komunitateen eskubideak erabiltzeko aukera edukitzea ere badenez gero, hizkuntza-komunitateen duintasuna errespetatzea lagungarria da helburu hori lortzeko.

4.- Askatasunak murrizten dituzten legerien aurka egitea (hala nola Herritarren Segurtasunerako Legearen, Segurtasun Pribatuaren Legearen, azkenaldi honetan Zigor Kodean egindako erreformen edota gobernuaren ordezkariaren jardunaren aurka).

5.- Segurtasun publikoko euskal eredu bat argitu eta antolatzeko plan estrategiko bat lantzea, eta gure premietan, baliabideetan eta identitatean oinarritutako segurtasun-sistema integral bat ezartzea.

6.- Gure errealitatean oinarrituta egongo den, zigorrak betetzeko eskema alternatibo bat ezarriko duen, espetxearen barnealdearen eta kanpoaldearen arteko lotura eta, horren bidez, zigortutako pertsona sozializatu eta gizarteratzeko bideak erraztuko dituen eta era horretan Europako giltzapetze-tasetara hurbilduko gaituen espetxe-sistema bat ezartzeko aukerari buruzko eztabaida sakona egitea.

7.- Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko planta judicial batean kokatutako epaitegi eta auzitegien bidez epaituko duen eta epaitutakoa betearaziko duen euskal justizia-administrazio despolitizatu, moderno, eraginkor eta euskaldun bat garatzea.

8.- Inolako urraketarik ez errepikatzeko bermeen alde, giza eskubideen kultura berrezartzeko eta eskubide guztiak zaintzeko nazioarteko estandarrei jarraituz, Giza Eskubideen Plan Estrategiko baten inguruko eztabaida egingo da, eta Plana idatziko da. Bizikidetzaren erronka etorkizunean bizikidetzaren hori hautsi ahal izango duten arazoei aurre egitean datza, eta, horretarako, zorrotz bermatu beharko dira giza eskubide, eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial, kultural, hirugarren belaunaldiko eskubide eta herrien eskubide guztiak: independentzia ekonomiko eta politikorako eskubidea, bizitza duina ahalbidetuko duen garapenerako eskubidea, identitate nazional eta kulturalerako eskubidea, justiziarako, elkartasunerako eta nazioarteko lankidetzarako eskubidea, ingurumenerako eskubidea eta, azkenik, aurrekoen arragoa gisa, autodeterminaziorako eskubidea eta bakerako eskubidea.

ehbildu

